

opusdei.org

## **Arau juridikoak**

Opus Deiko prelatutzaren arau juridikoak, hauek dira: Elizaren zuzenbide orokorra, Ut sit konstituzio apostolikoa eta Opus Deiren beraren Estatutuak edo zuzenbide bereziko Kodea.

2004 Mar 18

1983ko Zuzenbide Kanonikoaren Kodeak, prelatutza pertsonala figuraren oinarritzko arauak ditu (kan. 294-297).

Prelatutzako apaizgoa osatzen duten apaizak, prelatuaren osoko menpetasunean daude, nork adierazten baitie beren zeregin pastoralak, elizbarrutiko pastoralarekin osoko batasunean betetzen dituztenak. Prelatutza arduratzen da haien mantentze ekonomikoaz.

Kide laikoak, era berean, prelatuaren menpean daude prelatutzaren misioari dagokion guztian. Baita, agintari zibilen menpean daude herritar guztiak bezala, eta beste eliz-agintarien menpean ere, gainerako katoliko sekularrak modura.